BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4165

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bitartez, enplegu berdearekin lotutako jardunak –kualifikazio-maila handiko gazte langabeen enplegagarritasuna hobetzera zuzendutakoak– finantzatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko eremuko diru-laguntzen deialdia argitaratzen da, Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2012ko uztailaren 6ko bilkuran hartutako Erabaki bidez onartutakoa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2012ko uztailaren 6ko bilkuran hartutako Erabaki bidez, enplegu berdearekin lotutako jardunak –kualifikazio-maila handiko gazte langabeen enplegagarritasuna hobetzera zuzendutakoak– finantzatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko eremuko diru-laguntzen deialdia onartu du, eta maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak onartutako Lanbideren Estatutuen 102. artikuluaren p) atalean ezarritakoaren arabera, erakunde autonomo horretako zuzendari nagusiari dagokio deialdia argitaratzea.

Adierazitako guztiagatik,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Enplegu berdearekin lotutako jardunak –kualifikazio-maila handiko gazte langabeen enplegagarritasuna hobetzera zuzendutakoak– finantzatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko eremuko diru-laguntzen deialdia argitaratzea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2012ko uztailaren 6ko bilkuran hartutako Erabaki bidez onartutakoa eta Ebazpen honen eranskin gisa jasoa.

Bigarrena.– Jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak diru-laguntzen deialdia onartzeko hartutako Erabakiak Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritza Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango dituela ondorioak.

Hirugarrena.– Jakinaraztea deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak hartutako Erabakiaren aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango dela organo horretan bertan hilabeteko epean, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 29a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JAVIER RAMOS SALAZAR.

ERANSKINA

ENPLEGU BERDEAREKIN LOTUTAKO JARDUNAK –KUALIFIKAZIO MAILA HANDIKO GAZTE LANGABEEN ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZERA ZUZENDUTAKOAK– FINANTZATZEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EREMUKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA.

Europako Batzordeak «Europa 2020 Estrategia» dokumentuan adierazten zuen, alde batetik, eraldaketa-une baten aurrean gaudela eta krisia dela-eta gure aurrerapen ekonomiko eta sozialean sortu diren egitura-ahuleziak gainditu behar ditugula, eta, bestetik, kolektiboki krisitik indartuta ateratzen laguntzeko estrategia bat bultzatu behar dugula, «enpleguko, produktibitateko eta gizarte-kohesioko maila handiak bilduko dituen ekonomia adimenduna, iraunkorra eta integratzailea lortzeko».

Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legeak egitura-norainokoari dagokionez islatzen duen etorkizunean, «produkzio-sektore tradizionalak berritu eta enplegu egonkorrak eta kalitatekoak eskatzen dituzten jarduera berrietara irmoki ireki» beharko lirateke. Horretatik abiatuta eta nazioz gaindiko estamentuen laguntzarekin, hainbat ekimen jarri dira martxan eta egokiak izan direla ikusi da.

Euskadin, EcoEuskadi 2020 Garapen Iraunkorreko Estrategiak dio industriaren eta Administrazio Publikoaren indarren gainean eraikitzea dela euskal produkzio-sarea garapen-bidean dauden merkatuetan kokatzeko prozesuan aurreratzeko gakoa. Euskadin etorkizunari begira egindako azterketan ikus daiteke euskal enpresek hurrengo urteetan merkatu berdea bultza dezaketen zenbait teknologiatan posizio egokia betetzen dutela, honako hauetan esaterako: neurketa- eta kontrol-sistemak, uren tratamendua eta hornidura, eguzki-energia termikoa, baliabide naturalen balioztapena eta efizientzia edo eraikuntza eta birgaitze iraunkorra.

Horrela, aukera sorta handia irekitzen da, hala nola enplegu berriak sortzea ingurumenarekin lotutako sektoreetan eta gorabidean dauden eta sendotu gabe ditugun jardueretan, esaterako produktuen ekodiseinuan eta efizientzia materialean.

Bestalde, 2011-2014ko Euskal Enplegu Estrategiaren helburua da enplegagarritasun-politika integratu bateko elementu kritiko guztiak tresna bakar batean biltzea. Horrela, estrategia horren helburuen artean nabarmentzekoa da kalitateko enplegu egonkorraren bidez biztanleriaren jarduera handitzea eta produktibitatea hobetzea, lan-merkatu ireki eta iraunkor baten barruan, aukera-berdintasunean eta gizarte- eta lurralde-kohesioan oinarrituta.

Estrategia hori Europako Batzordean eta Espainiako enplegu-estrategian ezarritako ildo nagusiekin lerrokatzen da, eta bere edukia enplegagarritasuna eta enplegu-politika aktiboen hobekuntzarako presakako neurriei buruzko otsailaren 18ko 3/2011 Errege Lege Dekretuan mugatuta dago.

Estrategia hori azkenaldiko krisi ekonomikoak baldintzatzen badu ere, enplegu- eta prestakuntza-programak sustatuz enplegagarritasuna hobetzeko eta biztanleria egokitzeko beharrei erantzuten saiatzen da.

2012. urtean, Enplegurako Euskal Estrategia plan operatibo batean gauzatu da, hain zuzen ere ahalegin guztiak lan-merkatura egokitzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboak (gazteak eta luzaroko langabeak) gorabidean dauden jarduera ekonomikoko sektoreetara (ekonomia iraunkorrarekin eta enplegu berdearekin lotutakoak) bideratzeko kualifikatzen oinarritzen den plan batean. Plan Operatiboak baliabide ekonomikoen eta giza kapitalaren arteko sinbiosi egokiaren aldeko apustua egin du, enplegua sortuko duen iraunkortasun-eredu baterantz aurrera egiteko.

Enplegu berdeek enpresen eta sektore ekonomikoen ingurumen-inpaktua murrizten laguntzen dute, eta jarduera-maila iraunkorra lortzea bilatzen dute, ekosistemak babestuz, produkzioan erabiltzen diren energiaren, uraren eta materialen kontsumoa murriztuz, hondakinen ekoizpena eta kutsadura-maila minimizatuz eta ekonomiaren karbonoarekiko mendetasuna murriztuz.

Apustu horren ondorioz, 2012rako elkarrekin erlazionatuta dauden bi jardun-lerro definitu dira aipatutako kolektiboen enplegagarritasun-tasa enplegu berdearen eremuan birkualifikatzeko eta hobetzeko ahaleginean. Jardun-lerro bat kualifikazio-maila handia duten gazteei zuzenduta dago, eta prestakuntza eta prestakuntza-praktikak egitea (enpresetan, erakundeetan eta entitateetan) uztartzen ditu; beste jardun-lerroa nagusiki luzaroko langabeei zuzenduta (baita landun autonomoei ere) eta kualifikazio-maila guztietara bideratuta dago. Deialdi honetan, lehen jardun-lerroa garatzen da, aurretik aipatutako Enpleguaren Euskal Estrategiaren Proposamenean ezartzen diren helburuak eta EcoEuskadi Garapen Iraunkorreko Estrategian planteatzen diren gomendioak kontuan hartuta.

Hori guztia dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legea onartu ondoren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak proposatuta, enplegu berdearekin lotutako jardunak –kualifikazio-maila handiko gazte langabeen enplegagarritasuna hobetzera zuzendutakoak– finantzatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko eremuko diru-laguntzen deialdia onartu zuen erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluak 2012ko bilkuran, honako termino hauetan:

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-eremua.

Deialdi honen helburua honako hau da: enplegu berdearekin lotutako jardunak –garapen iraunkorreko arloetan kualifikazio-maila handia duten gazte langabeen enplegagarritasuna hobetzera zuzendutakoak– finantzatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko eremuko diru-laguntzak arautzea.

Deialdi honen babesean finantzatutako jardunak egiteak honako helburu hauek ditu:

● Unibertsitate-titulazioa edo lanbide-heziketako goi-mailako titulazioa duten gazteak enplegu berdeekin lotutako lanbide-gaitasunetan birkualifikatzea.

● Gazteak gorabidean dauden eta unibertsitate-mailako edo goi-mailako lanbide-heziketako prestakuntza akademikoa eskatzen duten lanetan laneratzea (I. eranskina).

● Gazteen artean kultura ekintzailea sustatzea, prestakuntzaren bidez.

2. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

1.– Deialdi honen xede diren ekintzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 4.983.000 euro izango da gehienez; zenbateko horretatik a) eta b) idatz-zatietan jasotzen diren jardunei aurre egiteko, 1.795.250 euro 2012ko ordainketa-krediturari dagozkio eta 771.750 euro 2013ko konpromiso-krediturari, eta, bestalde, c) eta d) idatz-zatietan jasotako jardunei aurre egiteko, 2.416.000 euro 2013ko aurrekontu arruntaren kargura izango dira.

Diru-zuzkidura diruz lagun daitezkeen jardunen artean banakatuko da, honela:

a) Prestakuntza-ekintzak (tutoretza-jarduera osagarriak eta proiektuaren garapenari lotutako jarraipena eta kudeaketa barne) finantzatzeko: 2.367.000 euro.

b) Zentroko prestakuntza-prozesuan ikasleari zuzendutako laguntzak: 200.000 euro.

c) Ikasleek enpresa, erakunde edo entitateetan prestakuntza-praktikak egiteko bekak eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzetik eratorritako Gizarte Segurantzako kuotak: 1.509.000 euro.

d) Prestakuntza-praktikak garatuko diren enpresa, erakunde eta entitateei zuzendutako konpentsazio ekonomikoa: 907.000 euro.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007. urteko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluari jarraiki, 2013an enpresa, erakunde eta entitateetan eman beharreko prestakuntza-praktiketan parte hartzen dutenei zuzendutako bekei buruzko ebazpenak eta praktika horiek egiteagatiko konpentsazio ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko 2013rako Aurrekontu Orokorretan kreditu egokia eta nahikoa izatearen baldintzapean daude.

3.– Deialdi honetarako baliabide ekonomikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2013rako Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik datozenak, Europako Gizarte Funtsak (EGF) finantzatuko ditu (% 50) 2007-2013ko Euskadiko EGF Programa Operatiboaren esparruan.

3. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

Deialdi honen babesean diru-laguntza jaso dezaketen jardunak honako hauek dira:

1.– 7. artikuluan aurreikusitako hartzaileei zuzenduta dauden eta honako ekintza hauek biltzen dituzten prestakuntza-proiektuak egikaritzea:

a) Prestakuntza-ekintzak.

II. eranskinean bildutako prestakuntza-ekintza kualifikatzaileak, kultura ekintzaileko eduki espezifiko eta zeharkakoak biltzen dituztenak eta lehentasunezko enplegu berdeen (EJSNaren arabera) kualifikazio-premiei edota eskakizunei erantzuten dietenak (I. eranskinean agertzen dira).

Prestakuntza-zentro edo prestakuntza-entitate batean emango da prestakuntza, modalitate presentzialean nahitaez. Prestakuntza gutxienez 125 ordukoa eta gehienez 350 ordukoa izango da, II. eranskinean zehaztutako prestakuntza-espezialitatearen arabera.

b) Prestakuntza-praktikak enpresetan, erakundeetan eta entitateetan.

Enpresa, erakunde eta entitateetako prestakuntza-praktikak parte-hartzailearen prestakuntza-prozesuaren zati gisa hartzen dira ondorio guztietarako, eta, beraz, bat etorri beharko dute dagozkion prestakuntza-ekintzen eduki teoriko-praktikoarekin. Praktiken helburua enpresan garapen iraunkorreko plan bat lantzea eta gauzatzea izango da. Plan hori aukeratutako prestakuntza-espezialitatearen arabera gauzatuko da eta II. eranskinean zehaztutako ekintza-proposamenei jarraituko die. Prestakuntza-praktikan garatu beharreko Ekintza Iraunkorreko Planak enpresan, erakundean edo entitatean garatzen den jardueraren premiei erantzuten diela bermatuko da, baita edukia I. eranskinean zerrendatutako gorabidean dauden lanen benetako jardunarekin bat datorrela ere. Era horretan, parte-hartzailea lana garatuko den testuinguruan kokatuko da, eta lanaren eszenatoki errealarekiko kontaktua ahalbidetuko zaio.

Deialdi honen bitartez araututako diru-laguntzen erakunde onuradunak prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten pertsonen % 100ari eskaini beharko dizkio praktikak. Parte-hartzaile guztiek praktikak egitea da helburua.

Enpresa, erakunde eta entitateetako prestakuntza-praktikek ez dute parte-hartzaileekiko lan-harremanik eskatzen, ezta haiei prestakuntza praktikoagatik konpentsazio ekonomikoa ematea ere, betiere 8. artikuluan bekei eta laguntzei buruz aurreikusitakoa salbuetsita.

Proiektuaren erakunde onuradunak izango du enpresarekin, erakundearekin edo entitatearekin prestakuntza-praktiken prestakuntza-programa adosteko ardura. Programa horretan, praktiken edukia (ikus II. eranskina), iraupena, lekua, ordutegia eta jarraipena egiteko tutoretza-sistema jasoko dira. Horretarako, prestakuntza-programak beha eta neur daitezkeen ebaluazio-irizpideak jasoko ditu, ikaskuntzaren emaitzak, eta, beraz, lanbide-gaitasunak eskuratu izana egiaztatzeko.

Enpresak, erakundeak edo entitateak tutore bat izendatuko du bere langileen artean; tutore horrek parte-hartzaileen lana gainbegiratuko du, parte-hartzaileei enpresaren ekintza iraunkorreko plana lantzeko laguntza teknikoa emango die, zereginak banatuko ditu eta horien ebaluazioan lagunduko du. Prestakuntza-praktiken edukiak parte-hartzaileari gorabidean dagoen lanari lotutako lanbide-gaitasunak ebaluazio dokumentatu baten bidez eskuratzeko eta garatzeko aukera emango diola bermatuko da.

Enpresa, erakunde eta entitateetako prestakuntza-praktikak prestakuntza-ekintzen amaieran edo prestakuntza-ekintzekin batera egin ahal izango dira. Azken kasu horretan, beharrezkoa izango da parte-hartzaileek gutxienez prestakuntza teorikoaren ehuneko 50 egin izana eta praktiketan inplikatutako alderdi guztien adostasuna izatea.

Prestakuntza-praktikak hasi aurretik, enpresek, erakundeek edo entitateek praktika horiek egiteko asmoaren eta praktika horien edukiaren berri eman beharko diete langileen legezko ordezkariei, eta praktiketan parte hartuko duten ikasleen zerrenda bat ere emango diete.

Prestakuntza-praktikak gutxienez 450 ordukoak eta gehienez 650 ordukoak izango dira, 3-6 hilabeteko aldian egin beharko dira eta egunean gehienez 5 orduko praktikak egin ahal izango ditu ikasle bakoitzak.

2.– Era berean, diruz lagundu ahal izango da erakunde onuradunek proiektuaren garapenari lotutako honako prospekzio-, tutoretza-, jarraipen- eta kudeaketa-jarduera hauek egitea:

a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aurretik hautatutako pertsonen artean parte-hartzaileak hautatzea. Horretarako, parte-hartzaile bakoitzak deialdi honen III. eranskinean agertzen den inprimakia, www.lanbide.net web-orrian eskuragarri dagoena, bete beharko du.

b) Parte-hartzaileek prestakuntza-praktikak egingo dituzten enpresak, erakundeak edo entitateak erakartzea eta dagokion hitzarmena izenpetzea; hitzarmenaren eredua www.lanbide.net web-orrian dago eskuragarri.

c) Hala badagokio, prestakuntza-ekintzak emango dituzten zentroak hautatzea.

d) Enpresa, erakunde eta entitateetako prestakuntza-ekintzak eta prestakuntza-praktikak koordinatzea.

e) Prestakuntza-praktiketako parte-hartzaileen gainbegiratzea eta laguntza teknikoa ematea enpresaren ekintza iraunkorreko plana lantzerakoan eta planaren ebaluazioan.

f) Prestakuntza-prozesu osoaren jarraipena egitea.

g) Proiektuan parte hartzen duten langabeei zuzendutako bekak eta laguntzak kudeatzeko eta ordaintzeko beharrezkoak diren izapideak egitea.

h) Prestakuntza-praktikak direla-eta, enpresei, erakundeei eta entitateei dagozkien konpentsazio ekonomikoak kudeatzeko beharrezkoak diten izapideak eta ordainketak egitea, baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Gizarte Segurantzan alta emateko (prestakuntza-praktikek horrela eskatzen dute) beharrezkoa den administrazio-izapidetzea egitea ere.

i) Beharrezkoak diren justifikazio ekonomikoak egitea; justifikazio horiek auditoretza-txosten teknikoaren bidez egikarituko dira, www.lanbide.net web-orrian eskuragarri dagoen ereduan adierazten den moduan.

3.– Deialdi honen babesean garatzen diren prestakuntza-proiektuak 2012ko ekitaldian hasi beharko dira, deialdi honen ebazpena ematen denetik aurrera, eta 2013ko apirilaren 30a baino lehen amaitu beharko dira.

4. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Emango diren diru-laguntzen gehieneko zenbatekoak honako hauek izango dira:

a) Prestakuntza-ekintzak egiteko: guztizko zenbatekoa kalkulatzeko, prestakuntza-ekintza bakoitzaren ordu kopurua ikasle kopuruarekin eta II. eranskinean jasotako honako modulu hauen zenbatekoarekin biderkatu behar da, prestakuntzaren edukiaren arabera:

1.– Ekintzailetza Moduluak: 9 euro/ordu.

2.– Modulu Espezifikoak: 13 euro/ordu.

b) Deialdi honen 3. artikuluaren 2. idatz-zatian proiektuaren garapenari lotuta aipatzen diren prospekzio-, tutoretza-, jarraipen- eta kudeaketa-jarduera osagarriak finantzatzeko: parte-hartzaile bakoitzeko 600 euroko balioa izango duen modulu ekonomiko finko bat.

c) Prestakuntza-zentroko prestakuntza-jardueretan parte hartzeko ikasleei zuzendutako laguntza ekonomikoetarako: gehieneko zenbatekoak deialdi honen 9. A artikuluan aurreikusitakoak izango dira.

d) Enpresa, erakunde eta entitateetako prestakuntza-praktikak egiteko ikasleei zuzendutako beketarako: hilean 500 euro parte-hartzaile bakoitzeko.

e) Beren lantokietan prestakuntza-praktiketako parte-hartzaileak hartzen dituzten enpresen, erakundeen eta entitateen konpentsazio ekonomikora bideratutako laguntzetarako: 3 euro pertsona eta praktika-ordu bakoitzeko.

Emango diren laguntzen zenbatekoak ezin izango ditu gainditu hurrengo artikuluan ezartzen diren diruz lagun daitezkeen gastuak.

5. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak.

1.– Prestakuntza-jardueraren zuzeneko kostuak:

a) Barneko eta kanpoko prestatzaileen ordainsariak, honako hauek barne: soldatak, aseguru sozialak, dietak, bidaia-gastuak eta, oro har, prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileei zuzendutako jarduerak prestatzeari eta emateari dagozkion gastuak, baita tutoretza- eta ebaluazio-jarduerei dagozkienak ere. Gastu horiek behar den bezala banakatuta adierazi behar dira, kasuan kasuko jarduera bakoitzak hartutako orduak zehaztuz.

b) Ekipo didaktikoak amortizatzeko gastuak (kontabilitate-arauetan onartutako amortizazio-irizpideei jarraiki kalkulatuak) eta prestakuntza-ekintzak egikaritzean jasandako ekipo horien

alokairua edo finantza-errentamendua, interesak salbuetsita. Gastu horiek prestakuntza-ekintza bakoitzaren kasuan behar den bezala banakatuko dira eta, ekipoei erabilera indibiduala eman bazaie, parte-hartzaile kopuruaren arabera egotziko dira; bestela, erabilera-orduen arabera egotziko dira.

c) Baliabide didaktikoen gastuak, material didaktikoak erostekoak eta prestakuntza-ekintzak egiteko erabilitako ondasun kontsumigarrien gastuak, babes eta segurtasunerako materiala barnean hartuta. Gastu horiek prestakuntza-ekintza bakoitzaren kasuan behar den bezala banakatuko dira eta, ekipoei erabilera indibiduala eman bazaie, parte-hartzaileen kopuruaren arabera egotziko dira; bestela, erabilera-orduen arabera egotziko dira.

d) Alokairuko eta finantza-errentamenduko gastuak, interesak kanpo, edo prestakuntza-planaren garapenean erabilitako gelak, tailerrak eta gainerako azaleren amortizazioa. Gastu horiek prestakuntza-ekintza bakoitzaren kasuan behar den bezala banakatuko dira, eta ekintzak irauten duen denboraren arabera egotziko dira. Amortizazio-gastuak kalkulatzeko, oro har onartuta dauden kontabilitate-arauak jarraituko dira; gainera, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak onartutako taulen araberako amortizazio-metodoa aplikatuko da.

e) Prestakuntza-ekintzak antolatzeko eta ezagutzera emateko publikotasun-gastuak. Gastu horiek prestakuntza-ekintzen arabera behar bezala banakatuta aurkeztu behar dira.

2.– Prestakuntza-jarduerarei lotutako kostuak:

a) Kanpoko zein barruko laguntza-langileen kostuak eta plana kudeatzeko eta egikaritzeko beharrezkoak diren kostu guztiak.

b) Diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotutako finantza-gastuak, jarduera hori behar bezala prestatzeko edo egikaritzeko ezinbestekoak badira. Ez dira diruz lagunduko banku-kontuen interes zordunak.

c) Beste kostu batzuk: argia, ura, berokuntza, mezularitza, posta, garbiketa, zaintza eta lehenago zehaztu gabeko beste kostu batzuk, prestakuntza-ekintza egikaritzeari lotuta badaude.

Kostu horiek guztiak erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerari egotziko dizkio, onartutako kontabilitateko arau eta printzipioetan adierazitako moduan eta, edozein kasutan, kostu horiek jarduera egin den aldikoak badira. Lotutako kostuen baturak ezin izango du gainditu prestakuntza-jardueraren kostuen ehuneko 20.

3.– Diruz lagundu daitezkeen beste kostu batzuk:

a) Proiektuaren garapenari lotutako prospekzio-, tutoretza-, jarraipen- eta kudeaketa-jardunak dituzten pertsonei egotz dakizkiekeen kostuak, honako hauek bilduz: soldatak, aseguru sozialak, dietak eta lekualdatzeek eragindako bidaia-gastuak. Gastu horiek behar den bezala banakatuta adierazi behar dira, kasuan kasuko jarduera bakoitzak hartutako orduak zehaztuz.

b) Kontu-auditorearen txostena egitearen ondoriozko gastuak ere diruz lagundu ahal izango dira.

4.– Edonola ere, artikulu honetan aurreikusitako diruz lagun daitezkeen kostuak kostu errealak izango dira, eta egin, ordaindu eta justifikatu egin beharko dira fakturen edo pareko balioko kontabilitate-dokumentuen bitartez.

6. artikulua.– Erakunde onuradunak eta betekizunak.

1.– Honako hauek izan daitezke proiektuaren garapenari lotutako prestakuntza-ekintzak eta tutoretza-, jarraipen- eta kudeaketa-ekintza osagarriak egiteko deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun:

a) Dagokion Lurralde Historikoko sektore arteko enpresa-erakundeak, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan ordezkaritzarik handiena duten enpresa-erakundeak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan ordezkaritzarik handiena duten sektore arteko sindikatuak.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko prestakuntza-zentroak edo prestakuntza-erakundeak.

2.– Aurreko paragrafoan aipatzen diren erakunde onuradunek lotura izan beharko dute proiektuaren xede den prestakuntzarekin, sektorearen arabera.

3.– Onuradun-izaera izateko, lehen paragrafoan aurreikusitako erakundeek honako hauek bete beharko dituzte:

a) Behar adinako gaitasun teknikoa egiaztatzea. Horretarako, enplegurako lanbide-heziketan gutxienez hiru urteko esperientzia izan beharko da; esperientzia hori aldi horretan egin diren lanen zerrenda bat biltzen duen erantzukizun-aitorpen baten bidez ziurtatuko da. Eredu hori www.lanbide.net web-orrian egongo da eskuragarri.

b) I. eranskinean bildutako jarduera ekonomikoko sektoreetako (EJSNaren arabera) hainbat enpresarekin akordioak izatea, 3.1.a) artikuluan aurreikusitako ekintzei lotutako prestakuntza-premiak aldez aurretik detektatzeko eta 3.1 b) artikuluan aurreikusitako prestakuntza-praktikak enpresarako proiektu iraunkorra egiteko planaren eremuan egingo direla bermatzeko.

4.–Artikulu honen 1.d) idatz-zatian jasotako prestakuntza-zentroek edo prestakuntza-erakundeek enplegurako prestakuntza emateko baimena izan beharko dute deialdi hau EHAAen argitaratzen den egunean, edota esperientzia egiaztatua izan beharko dute II. eranskinean adierazten den ingurumen-prestakuntzan (memoria teknikoaren bitartez frogatuko da).

5.– Gainera, II. eranskinean aurreikusitako prestakuntza-ekintzak emateko irakasleak izan beharko dituzte zentroek, eta irakasle horiek prestakuntza-ekintza bakoitzerako eskatutako profila bete beharko dute, IV. eranskinean deskribatzen denari jarraiki. Zentroek irakasle horiek dituztela egiaztatzeko, irakasleekin izenpetutako lan-kontratuak aurkeztu beharko dituzte.

7. artikulua.– Prestakuntzaren hartzaileak.

1.– Finantzaketaren xede diren proiektuetan parte hartu ahal izango dutenak honako hauek dira: 35 urtetik beherako gazte langabeak, kualifikazio-maila handikoak eta enplegu berdearekin zerikusia duten arloetako lanbide-gaitasunak hobetu nahi dituztenak, lan-merkatuan sartzeko aukerak handitzeko.

Deialdi honen ondorioetarako, kualifikazio-maila handiko gaztetzat hartzen dira I. eranskinean zerrendatutako lanbide-arloetan unibertsitateko titulazioa edo goi-mailako lanbide-heziketako titulazioa duten gazteak.

Eskaintzen diren prestakuntza-ekintzetan parte hartu nahi dutenek parte hartzeko betekizunak bete beharko dituzte, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta dauden langabeak izan beharko dute.

2.– Parte-hartzaileak prestakuntza-ekintzengatiko diru-laguntza jasotzen duen erakunde onuradunak hautatuko ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aurretik hautatutakoen pertsonen artean. Hautaketaren irizpideak konkurrantzia, berdintasuna eta diskriminazio-eza izango dira.

3.– Eskaera egin eta hamar eguneko epean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez baditu proiektuan parte hartzeko pertsonak proposatu, erakunde onuradunak hautatu ahal izango ditu enplegu-eskatzaile gisa inskribatutako 35 urtetik beherako beste langabe batzuk. Azken kasu horretan, erakunde onuradunak honako hauek jakinarazi beharko ditu 10 eguneko epean: erabilitako hautaketa-irizpideak eta hautatutako pertsonen zerrenda.

4.– Gainera, erakunde onuradunak beste hauek ere jakinarazi beharko dizkio Lanbideri idazki bidez: ekintzaren identifikazioa, ekintza emateko lekua, irakasleen zerrenda eta profilak, parte-hartzaileen zerrenda eta prestakuntza-ekintzak hasteko aurreikusitako data (gutxienez ekintzaren hasiera baino 10 egun lehenagotik).

8. artikulua.– Prestakuntza-ekintzetan parte hartzen dutenen betebeharrak eta ikasleak kanporatzeko prozedura.

1.– Parte-hartzaileek prestakuntza-ekintzetara joan beharko dute, eta probetxua atera beharko diete.

2.– Honako hauek izango dira ikasleak kanporatzeko arrazoiak:

a) Hilean hirutan baino gehiagotan ekintzara arrazoirik gabe ez joatea.

b) Prestakuntza-ekintzaren iraupenaren % 25ean ez joatea, arrazoia edozein izanik ere. Parte-hartzailea prestakuntza-ekintza hasi ondoren sartu bada, joan gabeko denbora ikaslea ekintzan sartzen denetik ekintza amaitu arte geratzen diren orduak kontuan hartuta kalkulatuko da.

c) Prestakuntza ematen duen zentroak edo erakundeak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ikusitako probetxurik eza edo portaera desegokia.

3.– Ikasle bat kanporatzeko jarraitu beharreko prozedura honako hau izango da:

a) Prestakuntza-erakundeak edo prestakuntza-zentroak kanporatzeko arrazoiren bat ikusiz gero, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraziko dio idazki bidez. Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko zuzendariak kanporatzeko prozedura hasteko erabakia hartuko du, eta dagokion ikasleari jakinaraziko zaio. Prozedura hasteko erabaki horretan, kanporatzeko proposamena eragin duten gertakariak adieraziko dira, eta ikasleak bost egun naturaleko epea izango du alegazioak aurkezteko. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak 15 eguneko epean ebatziko du prozedura. Inguruabarrak direla-eta beharrezkoa bada, prestakuntza-ekintzaren garapen egokia bermatuko duten behin-behineko neurriak jaso ahal izango dira kanporatzea hasteko erabakian. Neurri horien artean, ikaslearen behin-behineko kanporatzea dago (erabakia jakinarazten denetik prozedura ebatzi arteko egunetan, hain zuzen ere).

b) Emandako ebazpenaren aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

9. artikulua.– Programako parte-hartzaileei zuzendutako laguntzak eta bekak.

Prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten langabeak honako beka eta laguntza hauen onuradun izan daitezke, artikulu honetan ezarritakoari jarraiki.

a) Prestakuntza-prozesurako laguntzak:

1.– Desgaitasuna duten langabeek beren egoera dagokion zerbitzuak igorritako ziurtagiri bidez egiaztatzen badute, prestakuntza-ekintzara joaten diren egun bakoitzeko 9 euroko beka jasotzeko eskubidea izango dute.

2.– Hiriarteko lekualdatzeen kasuan, joan-etorriko txartelen guztizko kostuaren zenbatekoko garraio-laguntza jasotzeko eskubidea izango da, gehienez 5 eurokoa prestakuntza-ekintzara joandako egun bakoitzeko. Horretarako, egindako gastuaren ordainagiriak gorde beharko dituzte eskatzaileek (txartela, abonua eta abar). Salbuespenezko kasuetan, prestakuntza-ekintzaren ordutegirako hiriarteko garraio publiko egokirik ez badago, norberaren ibilgailuan egindako joan-etorriei dagokien diru-laguntza emango da, kilometro bakoitzeko 0,19 euro eta gehienez 20 euro eguneko.

3.– Prestakuntza-prozesuaren ordutegia goizekoa eta arratsaldekoa bada eta langabearen ohiko bizilekutik prestakuntza ematen den zentrorako bidaia (joanekoa nahiz itzulerakoa) 50 kilometro edo gehiagokoa bada, mantenu-gastuengatiko laguntza jasotzeko eskubidea izango da, gehienez 12 eurokoa prestakuntza-ekintzara joandako egun bakoitzeko.

4.– 6. artikuluan aurreikusitako erakunde onuradunek laguntza eta beka horien eta horiek lortzeko eskatutako baldintzen inguruko informazioa emango diete prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileei.

5.– Prestakuntza-ekintzagatiko diru-laguntzaren onuradun den erakundeak laguntzak eskatzeko ereduak helaraziko dizkie parte-hartzaileei (www.lanbide.net web-orrian ere eskuragarri daude). Horretarako, 10 eguneko epean (prestakuntza-ekintza hasten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita), eskaera eta eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa helaraziko diote ikasleek erakunde onuradunari.

6.– Ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskabideak aurkeztu diren ordenaren arabera onartuko dira, xede honetarako onartu den aurrekontu-zuzkidura agortu arte.

Idatz-zati honetan jasotako laguntzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bitartez emango dira. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea bi hilabete izango da, eskaera jasotzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Nolanahi ere, laguntza ordaintzeko aurreikusitako baldintzak betetzen ez badira, erakunde onuradunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari helaraziko dio laguntza ukatzeko proposamena.

7.– Prestakuntza-prozesurako laguntzak bi ordainketatan ordainduko dira, betiere aldez aurretik ikaslea prestakuntza-ekintzara bertaratu dela egiaztatu ondoren; zehazki, honela ordainduko dira:

– Lehen ordainketa emandako guztizko laguntzaren % 10 izango da, emakida onartu ondoren eta 2012ko ordainketa-kredituaren kargura.

– Gainerako % 90a, emandako laguntzaren egiazko kostua osatu artekoa, diruz lagundutako aldia amaitutakoan jasoko da, 2013ko konpromiso-kredituaren kargura; hala badagokio, interesdunak egindako gastua justifikatu beharko du aldez aurretik.

b) Enpresa, erakunde eta entitateetako prestakuntza-praktikarako bekak.

1.– Deialdi honen babesean egikaritutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten langabeek hileko 500 euroko beka bat jasotzeko eskubidea izango dute enpresa, erakunde eta entitateetako prestakuntza-praktikak irauten duten aldian; beka hori prestakuntza-praktiketara bertaratzeak sortutako gastuei (mantenua eta bidaiak) aurre egiteko izango da.

2.– Idatz-zati honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, prestakuntza-ekintzagatiko diru-laguntzaren onuradun den erakundeak bekaren eta beka lortzeko eskatutako baldintzen inguruko informazioa emango die parte-hartzaileei praktiken aldian, eta, era berean, www.lanbide.net web-orrian eskuragarri dagoen beka-eskabidearen eredua helaraziko die.

Erakunde onuradunak interesdunen eskaerak jasoko ditu eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura bidaliko ditu enpresa, erakunde eta entitateetako prestakuntza-praktikak hasi baino 15 egun lehenagotik. Eskaera horri honako hauek gaineratu beharko zaizkio: NANaren fotokopia eta zentroaren txosten positiboa, interesdunaren prestakuntza-bilakaera egokia egiaztatuko duena. Lanbidek 10 eguneko gehieneko epean eskaera zuzentzeko eskatu ahal izango du; hori egin ezean, interesdunak eskaerari uko egin diola ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpen bidez gauzatuko da beka, eta, bertan, besteak beste, bekadunen betebeharrak jasoko dira.

4.– Laguntza hori jasotzen duten parte-hartzaileak besteren konturako langileak izango dira, eta horrela sartuko dira Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean, Gizarte Segurantzaren sistemaren eguneratze, moldatze eta eraberritzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, zeina prestakuntza-programetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeko baldintzak eta betebeharrak arautzen dituen urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuaren bitartez garatua izan den.

5.– Emandako beka hilero ordainduko zaie interesdunei, 2013ko ordainketa-kredituaren kargura.

10. artikulua.– Prestakuntza-praktika egiteko akordioa eta enpresei, erakundeei eta entitateei prestakuntza-praktika hori egiteagatiko konpentsazio ekonomikoa.

1.– Prestakuntza-ekintzagatiko diru-laguntzaren onuradun den erakundeak eta praktika profesionalak egingo diren enpresa, erakunde edo entitate interesdunak ikasleen prestakuntza-praktikak egiteko akordio bat sinatuko dute. Akordioaren eredua Lanbideren www.lanbide.net web-orrian egongo da eskuragarri; enpresaren garapen iraunkorreko plana ere adierazi beharko da, eta plan horrek II. eranskinean adibide gisa zehaztutako ekintzak bildu beharko ditu. Akordio hori Lanbidera bidaliko da baliozkotzeko. Enpresek akordio horren kopia bat edukiko dute tutoreak prestakuntza-praktikei buruz egindako txostenarekin batera.

2.– Deialdi honetan aurreikusitako prestakuntza-praktikak egingo diren enpresa, erakunde edo entitateek konpentsazio ekonomikoa jasoko dute (gehienez 3 euro pertsona eta praktika-ordu bakoitzeko).

3.– 6. artikuluan aurreikusitako erakunde onuradunek informazioa helaraziko die praktika profesionalak egiten diren enpresei, erakundeei edo entitateei, baita eskaera-eredua ere (Lanbideko web-orrian ere eskuragarri egongo da). Horretarako, praktikak amaitu eta hamabost eguneko epean, dagokion enpresa, erakunde edo entitateak konpentsazio ekonomikorako laguntza-eskaera eta praktikak egin izanaren egiaztapena helaraziko dizkio prestakuntza-ekintzagatiko diru-laguntzaren onuradun den erakundeari, bai eta segurantza sozialarekiko eta dagozkion zerga-beharretan egunean dagoela ziurtatzeko agiriak.

4.– Ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskabideak aurkeztu diren ordenaren arabera onartuko dira, xede honetarako onartu den aurrekontu-zuzkidura agortu arte.

Artikulu honetan jasotako laguntzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bitartez emango dira. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea bi hilabete izango da, eskaera jasotzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Nolanahi ere, laguntza ordaintzeko aurreikusitako baldintzak betetzen ez badira, erakunde onuradunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari helaraziko dio laguntza ukatzeko proposamena.

5.– Enpresari, erakundeari edo entitateari ordainketa bakar batean ordainduko zaio konpentsazio ekonomikoa, laguntzak emateko bidezko ebazpena hartu ondoren.

11. artikulua.– Eskaerak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako prestakuntza-proiektuak egikaritzeko diru-laguntzen eskaerak V. eranskinean jasotako eredu ofizialaren bidez aurkeztu beharko dira. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren www.lanbide.net web-orrian ere eskuragarri dago eredu hori, baita Memoria Teknikoaren eredu estandarra eta bekadun bat praktiketan hartzeko Enpresaren Konpromisoa ere.

Eskaerak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan aurkeztuko dira (Vitoria-Gasteizko Jose Atxotegi kalea, 1) Arabako lurralde-eremuan, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegu Bulegoetan, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde-eremuetan. Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

2.– Eskaeran honako hauek jaso beharko dira gutxienez:

a) Eskatzailearen izena eta izen soziala.

b) Azpikontratazioaren kasuan, diruz lagundutako jarduera osoa edo zati bat egikarituko duten erakunde azpikontratatuak; hala badagokio, sektore publikoko kontratuei buruzko indarreko araudian aurreikusitakora egokitu beharko dira. Diruz lagundutako ekintza egikaritzea onuradunei lotutako erakundeekin hitzartzen denean edo hitzartutako jardueraren zenbatekoak diru-laguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen duenean eta azken zenbateko hori 60.000 euro baino handiagoa denean, azpikontratazioak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Kontratua idazki bidez egitea.
- Diru-laguntza ematen duen erakundeak aldez aurretik kontratua egiteko baimena ematea.

c) Eskaera egiten duen legezko ordezkari baimenduaren identifikazioa eta sinadura.

d) Aurreikusitakoaren arabera proiektua garatzeko egingo diren Enplegu Berdearen Sektoreko lanak eta I. eranskinean zerrendatutako jarduerak.

e) Proiektu bakoitzeko hartzaile kopurua eta eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa, parte-hartzaileen kopurua eta prestakuntza-ekintza bakoitzeko prestakuntza-orduen kopurua zehaztuta.

f) Eskatzaileak eskaeran emandako informazioaren eta datuen egiazkotasunari buruz egindako aitorpena.

g) Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik jaso ez izanaren aitorpena, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izanarena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barnean hartuta.

3.– Eskaerak honako dokumentazio honekin batera aurkeztu beharko dira:

a) Indarrean dagoen legeriari jarraiki eskaera sinatzen duen pertsonak pertsona juridiko eskatzailearen izenean jarduteko dituen ordezkaritza-ahalmenak egiaztatuko dituen dokumentazioa.

b) Erakundearen identifikazio fiskalaren txartelaren fotokopia eta pertsona eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

c) Erakunde eskatzailearen behar bezala legeztatutako estatutuen fotokopia.

d) Erakundeek egindako lanen zerrenda bat bilduko duen aitorpenaren bidez finantzaketaren xede diren ekintzak egiteko beharrezkoa den esperientzia egiaztatuko duen dokumentazioa, 6.3.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

e) Irakasleen curriculum vitaea, IV. eranskinean deskribatzen denaren arabera prestakuntza-ekintza bakoitzean eskatutako profila egiaztatuko duena.

f) Erakunde eskatzaileak zerga-betebeharrak beteta dauzkala egiaztatuko duen egiaztagiri eguneratua.

g) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziurtagiri eguneratua, erakunde eskatzailea Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duena.

h) Hirugarren interesdunaren datuei alta emateko fitxa, erakundearen ordezkariak sinatua eta dagokion bankuak zigilatua.

4.– Eskaerak proiektuaren deskribapen-txosten bat jasoko du, eta honako elementu hauek bildu beharko dira bertan:

a) Proiektuaren justifikazioa, helburuak eta erantzun beharreko kualifikazio-premiak.

b) Parte-hartzaileak hautatzeko eta haiei informazioa eta aholkularitza emateko prozeduraren deskribapena.

c) Prestakuntza-praktiketan parte hartzeko aurreikusitako enpresen, erakundeen eta entitateen zerrenda, 6.3.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

d) Hautatutako irakasleen aurreikuspena, IV. eranskinean ezarritako baldintzen betetzea ziurtatuta.

e) Enpresa, erakunde eta entitateetako prestakuntza-ekintzen plangintzari, koordinazioari eta jarraipenari dagokien metodologia.

f) Proiektuaren antolaketa eta jarraipena, eta parte-hartzaileen prestakuntzaren ebaluazioa.

g) Egin beharreko ekintza eta jarduerei lotutako eta aurreikusitako bestelako giza baliabideak eta baliabide materialak.

h) Prestakuntza emateko erakunde onuradunak gehienez izango duen azpikontratazio-mailaren aitorpena.

5.– Eskabideak behar bezala osatuta edo aurreko paragrafoetan adierazitako nahitaezko dokumentazioarekin batera aurkezten ez badira, erakundeari hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Horrela egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

6.– Erakunde bakoitzak ezin izango du eskaera bat baino gehiago aurkeztu. Eskaera bat baino gehiago aurkezten badira, epearen barruan lehenago aurkeztutako eskaera onartuko da. Eskaerak data berean aurkeztutakoak badira, ekintza eta parte-hartzaileen kopuru handiena biltzen duen eskaera onartuko da.

7.– Eskaera bakoitzean, gehienez 60 parte-hartzaile bildu ahal izango dira, eta eskatutako prestakuntza-ekintza bakoitzeko 12-20 ikasleko taldeak osatuko dituzte.

8.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

12. artikulua.– Prozedura eta ebazpena.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako eta proiektuaren garapenari lotutako prestakuntza-ekintzak eta prospekzio-, tutoretza-, jarraipen- eta kudeaketa-ekintza osagarriak egiteko diru-laguntzak emateko prozedura izapidetzeko organo eskuduna Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Zuzendaritza izango da, eta ebazteko organo eskuduna, berriz, Lanbideko zuzendari nagusia.

2.– Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, deialdi honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenak onartuko dira. Programa finantzatzeko esleitutako baliabide ekonomikoak onartu beharreko eskaera guztien estaldurarako nahikoak ez badira, funtsak ezarritako lehentasun-ordenaren arabera banatuko dira, 13. artikuluan aurreikusitako balorazio-irizpideak kontuan hartuta. Horretarako, kide anitzeko organo bat sortuko da ebazpen-proposamena lantzeko; hona hemen organo hori osatuko dutenak:

– Presidentea: Enplegurako Prestakuntzaren Arloko arduraduna edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Bokalak: Enplegurako Prestakuntzaren Arloko arduradunak izendatutako lau teknikari; horietako batek idazkari-lanetan jardungo du.

3.– Diru-laguntza emateko ebazpenean, prestakuntza-zentro edo prestakuntza-erakunde bakoitzari esleitutako proiektuak eta laguntzak bilduko dira, baita zenbatekoak, ordainketa-epeak eta diru-laguntzak justifikatzeko modua ere; halaber, Europako Gizarte Funtsaren finantzaketa (2007-2013ko Euskadiko EGF Programa Operatiboaren esparruan) aipatuko da esanbidez.

Erakunde interesdunak 10 eguneko epea izango du, zuzendari nagusiak ebazpena jakinarazten duen unetik aurrera zenbatzen hasita, emandako diru-laguntza onartzen duela adierazteko eta deialdi honen bigarren gehigarrian ezarritakoaren arabera erakunde laguntzaile gisa izendatzeko. Epe horretan ez bada onarpenik adierazi, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da, eta artxibatu egingo da.

4.– Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea sei hilabete izango da gehienez, deialdi hau EHAAn argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta esanbidezko ebazpenik jakinarazi ezean, eskaera ezetsitzat hartu ahal izango da.

5.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta horren aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari hilabeteko epean, jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

6.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, eta emakida-ebazpenen jakinarazpen indibidualizatua eta esanbidezkoa aparte utzi gabe, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez honako hau emango da jakitera EHAAn: deialdi honen babesean emandako laguntzen erakunde onuradunen zerrenda, esleitutako zenbatekoak adierazita eta Europako Gizarte Funtsaren finantzaketa (2007-2013ko Euskadiko EGF Programa Operatiboaren esparruan) aipatuta.

13. artikulua.– Eskaerak balioesteko eta diru-laguntza esleitzeko irizpideak.

1.– Deialdi honetan aurkeztutako eskaeren lehentasun-ordena ezartzeko helburuarekin, baliabide ekonomikoak diru-laguntza emateko baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak estaltzeko nahikoak ez direnean, eskaerak honako irizpide hauen arabera balioetsiko dira:

a) Erakunde eskatzaileak prestakuntza emateko duen gaitasun teknikoa (10 puntu):

Azken puntuazioa kalkulatzeko, 100etik azpikontratazio-ehunekoa kendu eta horren emaitza 10ekin zatituko da.

b) Prestakuntza-praktikak enpresetan, erakundeetan eta entitateetan (50 puntu):

Irizpide horren araberako puntuazioa kalkulatzeko, eskaeran aurkeztutako prestakuntza-praktikak egiteko enpresa, erakunde eta entitateekiko konpromisoen kopurua ikasle kopuruarekin zatitu eta 50ekin biderkatuko da.

3.1.b) artikuluan garatutako jardueraren koherentziari buruz ezarritako betekizunak betetzen dituzten enpresa, erakunde eta entitateek prestakuntza-praktikan egin beharreko Ekintza Iraunkorreko Planarekin hartutako konpromisoak baino ez dira kontuan hartuko.

c) Prestatzaileen profila esperientziaren eta homologazioaren arabera egokitzea, IV. eranskinari jarraiki (20 puntu):

1) Prestatzaileek azken 5 urteetan izandako lanbide-esperientziaren balioespena: 0,05 puntu azken 5 urteetan egiaztatutako prestakuntza-ordu bakoitzeko, eta gehienez 10 puntu. (10 puntu).

Talde bat hainbat prestatzailerekin aurkezten bada, prestatzaile bakoitzak irakasle gisa izandako lanbide-esperientzia kalkulatuz egingo da balioespena, betiere prestatzaile bakoitzak prestakuntza-ekintza bakoitzaren guztizko dedikazioari egindako ekarpenaren arabera.

2) Prestatzaileak enpresan duten lanbide-esperientziaren balioespena (10 puntu):

– II. eranskinean zerrendatutako ekintzen eremuan lan-esperientzia izatea eta IV. eranskinean prestakuntza-ekintza bakoitzeko «balioets daitezkeen bestelako meritu» gisa ezarritako baldintzak betetzea (8 puntu).

● Gutxienez 5 enpresetan izandako esperientzia aurkeztea (8 puntu).

● Gutxienez 3 enpresetan izandako esperientzia aurkeztea (5 puntu).

● Gutxienez enpresa 1ean izandako esperientzia aurkeztea (2 puntu).

– Gainera, lan-esperientzia teknikoagatik lortutako puntuei beste 2 puntu gehituko zaizkio prestatzaileak agindu honen arlo desberdinetako (II. eranskineko ekintzen eremu berean) erreferentzia-erakunde publikoetan kontratatuak izan badira edota erakunde horietan programa honen xedearekin zerikusia duten lanak garatu badituzte (2 puntu).

d) Proiektuaren justifikazioa eta kualifikazio-premiak detetatzea (10 puntu):

– Proiektuaren deskribapen xehatua aurkeztea, eskariaren azterketa objektiboan justifikatua eta datu kuantitatibo eta kualitatiboetan oinarritua (10 puntu).

– Proiektuaren deskribapen xehatua aurkeztea, eskariaren azterketa subjektiboan oinarritua (5 puntu).

– Proiektuaren justifikazioa oso generikoa da nahiz eta Aginduaren eranskinetan jasotako informazioan oinarritzen den (2 puntu).

– Proiektuaren justifikazioa ez da nahikoa proiektuaren helburua bermatzeko (0 puntu).

e) Metodologiaren, edukien, baliabide didaktikoen eta materialen egokitzea (10 puntu):

– Prestakuntza-lerroaren deskribapen xehatua, proiektuaren plangintza eta baliabide didaktikoen eta teknikoen deskribapen zehatza jasoz (10 puntu).

– Prestakuntza-lerroaren deskribapen xehatua baina proiektuaren plangintza edo baliabide didaktikoak, baliabide materialak eta abar jaso gabe (8 puntu).

– Prestakuntza-lerroaren deskribapen laburra, zehaztasunik egin gabe (5 puntu).

– Funtsean deialdiaren deskribapena jasotzen du (2 puntu).

2.– Aurreko irizpideak aplikatuta eskaera bakoitzari esleitutako puntuazioa lortu ondoren, hautaketa honela egingo da:

a) Proiektuak lortutako balioespen teknikotik ateratako puntuazio-ordenaren arabera jasoko dute diru-laguntza kreditu erabilgarria agortu arte.

b) Balioespen-irizpideak aplikatu ondoren eskaera bat baino gehiagok puntuazio bera lortzen badute, prestakuntza-praktikak egiteko enpresekin, erakundeekin eta entitateekin akordio kopuru handiena biltzen duen eskaera finantzatuko da. Eskaerek akordio kopuru bera izango balute, eskaeren aurkezpen-ordena kontuan hartuta finantzatuko dira proiektuak.

14. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

1.– Proiektuaren garapenari lotutako prestakuntza-ekintzak eta prospekzio-, tutoretza-, jarraipen- eta kudeaketa-ekintza osagarriak egiteko emandako diru-laguntza bi ordainketatan ordainduko zaio erakunde onuradunari:

– Lehen ordainketa (% 75) 2012ko ekitaldian, emandako diru-laguntza onartu ondoren eta prestakuntza-ekintza hasitakoan egingo da.

– Gainerakoari dagokion bigarren ordainketa (% 25era bitarte) prestakuntza-proiektua amaitu ondoren egingo da (2013ko ekitaldian eta proiektua justifikatu eta likidatu ondoren); proiektua honako hauen batura gisa ulertuko da: prestakuntza-ekintza eta hari dagozkion praktikak enpresetan, erakundeetan eta entitateetan.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren arabera ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak ezartzen duen bermeen erregimenarekin bat etorriko da aldez aurreko ordainketa.

15. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintza orokorrak.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak emateko eta ordaintzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Zentro eta erakunde eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela ziurtatzen duten agiriak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen eta diru-laguntzen esparruan hasitako edozein itzultze-prozedura edo zehapen-prozedura amaituta egotea.

c) Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik jaso ez izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barnean hartuta.

16. artikulua.– Proiektuak egikaritzea.

1.– Diru-laguntzaren erakunde onuradunak prestakuntza-proiektua egikaritzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak horretarako landutako jarraibideak hartuko ditu kontuan. Jarraibide horietan, besteak beste, honako alderdi hauek jasoko dira: hasiera jakinarazteko modua, ondoren egin daitekeen edozein aldaketa eta prestakuntza-ekintza bakoitzaren amaiera, baita parte-hartzaileen bertaratze-kontrola, ordainketak gauzatzeko modua eta Europako Gizarte Funtsaren finantzaketaren ondoriozko edozein eskakizun.

2.– Prestakuntza-ekintza hasten denetik iraupenaren % 25era iritsi arte sartu edo ordezkatu ahal izango dira ikasleak.

3.– Prestakuntza-proiektuan parte hartzen dutenei dagokienez, prestakuntza emateko eta praktikak koordinatzeko ardura duten zentro eta erakundeek berehala jakinaraziko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari parte-hartzaileek prestakuntza-ekintzei edo haiei dagozkien praktikei uko egiten badiete, joaten ez badira edo bertan behera uzten badituzte, eta arrazoiak adierazi beharko dituzte.

4.– Erakunde onuradunak 15 eguneko gehieneko epean prestakuntza-ekintza amaitu duen eta prestakuntzan ebaluazio positiboa lortu duen parte-hartzaile bakoitzari bertaratze-ziurtagiri bat edo diploma bat emateko ardura izango du; ziurtagirian eta diploman, gutxienez honako hauek jasoko dira: prestakuntza-ekintzaren izena, prestakuntza-edukiak, iraupena (orduak) eta ekintza emateko aldia. Horretaz gain, praktikei dagokienez honako hauek jaso beharko dira: iraupena (orduak), egiteko aldia, enpresaren garapen iraunkorreko planaren bitartez garatutako prestakuntza-edukiak eta praktikak egin diren enpresa, baita Europako Gizarte Funtsaren finantzaketaren esanbidezko aipamena ere.

Bertaratze-ziurtagiria edo, hala badagokio, diploma enpresa, erakunde eta entitateetako prestakuntza-praktiken aldia amaitzen den egunetik aurrera eman edo bidali beharko zaie parte-hartzaileei.

5.– Azpikontratazioa ez da ezein kasutan onartuko diru-laguntzaren erakunde onuraduna prestakuntza-zentro bat edo prestakuntza-erakunde bat denean. Horretarako, erakunde onuradunak diruz lagundutako prestakuntza emateko irakasleak kontratatzea ez da azpikontrataziotzat hartuko.

17. artikulua.– Diru-laguntzaren erakunde onuradunen betebeharrak.

Deialdi honetan araututako laguntzen erakunde onuradunek honako betebehar hauek izango dituzte:

1.– Hautaketa-prozesuan:

1.1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak proiektuan parte hartzeko prest dagoen pertsonarik ez duela jakinarazten duen kasuan, 35 urtetik beherako langabeak hautatzea 10 eguneko epean. Kasu horretan, idazki bidez jakinarazi beharko dizkio Lanbideri erabilitako hautaketa-irizpideak eta azkenean hautatutako pertsonak.

1.2.– Lanbideri honako hauek jakinaraztea: prestakuntza-ekintzaren identifikazioa, ekintza emateko lekua, irakasleen zerrenda eta profilak, parte-hartzaileen zerrenda eta prestakuntza-ekintzak hasteko aurreikusitako data (gutxienez ekintzaren hasiera baino 15 egun lehenagotik).

2.– Prestakuntza-zentroan egiten den prestakuntza-prozesuan.

2.1.– Prestakuntza-prozesuko laguntza ekonomikoei dagokienez:

2.1.1.– Prestakuntza-ekintzaren hasieran parte-hartzaileei eskura ditzaketen laguntzei buruz nahiz laguntzak lortzeko betekizunei buruz informazioa ematea.

2.1.2.– www.lanbide.net web-orrian eskuragarri dauden laguntza eskatzeko ereduak helaraztea.

2.1.3.– Betetako laguntza-eskaerak eta dokumentazio egiaztatua jasotzea prestakuntza-ekintza hasi eta 10 eguneko gehieneko epean.

2.1.4.– Dokumentu bidez egiaztatzea prestakuntzara bertaratu izana eta prestakuntza-laguntzarako betebeharrak bete izana.

2.1.5.– Lanbideri aurkeztea ordaintzeko edo ez ordaintzeko proposamen irmoa, horren bitartez Lanbidek ebatz dezan.

2.1.6.– Ikasleei egindako ordainketen egiaztagiriak gordetzea.

2.1.7.– Ikasleei dagokion banku-kontuan ordaintzea, deialdi honen bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erakunde laguntzaile gisako izendapenaren arabera.

3.– Enpresa, erakunde eta entitateetako prestakuntza-praktiken prozesuan:

3.1.– Prestakuntza-proiektuetako parte-hartzaileen % 100ari praktikak ematea. Baldintza hori ez betetzeak diru-itzulketa eragingo du, hain zuzen ere praktikak egiten ez dituen ikasle bakoitzari dagokion zati proportzionalarena eta deialdi honetako 4. artikuluaren a) idatz-zatian zerrendatutako modulu ekonomikoei dagokienez.

3.2.– Parte-hartzaileei praktikek dirauten aldian hileko 500 euroko beka jasotzeko eskubidea dutela adieraztea.

3.3.– Parte-hartzaileei Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren www.lanbide.net web-orrian eskuragarri dagoen eskaera-eredua helaraztea.

3.4.– Interesdunak betetako eskaera-eredua jasotzea eta Lanbidera bidaltzea prestakuntza-praktiken hasiera baino 15 egun lehenago, baita NANaren fotokopia eta prestakuntza-zentroak parte-hartzailearen prestakuntza-helburuen betetze-mailarekiko egindako ebaluazio positiboko txosten bat ere.

3.5.– Bekaren hartzaileari Lanbideko zuzendari nagusiaren Ebazpena ematea; bertan, bekadunen betebeharrak jasoko dira.

3.6.– Ikasleei hileko ordainketa egitea dagokion banku-kontuan, deialdi honetako bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erakunde laguntzaile gisako izendapenaren arabera.

4.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskuragarri jarritako dokumentazioa erabiliz, prestakuntza-proiektuei buruzko informazioa jasotzea, kudeatzea eta ematea.

5.– 2026. urtera arte Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren, kontrol ekonomikoko eta fiskalizazioko organoen eta Europako Gizarte Funtseko organoen eskura izatea diruz lagundutako prestakuntza-proiektu eta -praktikei dagozkien dokumentuak.

6.– Enpresei, erakundeei eta entitateei dagozkien konpentsazio ekonomikoak ordaintzea, deialdi honen bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erakunde laguntzaile gisako izendapenaren arabera.

7.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea honako hauek egindako ez-betetzeak: laguntzen onuradunek (prestakuntza-prozesuan), beken onuradunek (prestakuntza-praktiken prozesuan) eta enpresek, erakundeek eta entitateek (horietan egindako lanbide-praktikak direla-eta jasotako konpentsazioen onuradunek), betiere ez-betetze horiek dirua itzultzeko prozedurak eragin baditzakete.

8.– Era berean, arazoaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 50.2 artikuluan ezarritako betekizunak betetzeaz gain, laguntzen erakunde onuradunek honako betebehar hauek ere bete behar dituzte:

a) Diruz lagundutako jardueren xedea edo izaera funtsean aldatzen duen edozein gorabehera jakinaraztea baita diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein inguruabarren (objektiboa nahiz subjektiboa) aldaketak ere.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan aritzea jarduera egiaztatzeko, ikuskatzeko, haren jarraipena egiteko eta kontrolatzeko prozeduretan eta, era berean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren eta Europako funtsen kontrol-instantzien egiaztatze- eta kontrol-jardueretara jartzea.

c) Laguntzekin lotura duten gai guztietan nahiz jakinarazpen-ekintza guztietan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Europako Gizarte Funtsaren finantzaketa (2007-2013 Euskadiko EGF Programa Operatiboaren esparruan) aipatzea, baita «Europako Gizarte Funtsak zure etorkizunean inbertitzen du» goiburua ere.

d) Jardueraren azken memoria bat aurkeztea, jardueraren deskribapenarekin eta eba-luazioarekin; memoria horri auditoretza-txosten bat gehituko zaio (eredua Lanbideren www.lanbide.net web-orritik jaits daiteke) eta txosten horretan deialdi honen 5. artikuluan deskribatutako diruz lagundutako gastu guztiak nahiz EGFk eskatutako administrazio-egiaztapen guztien zerrenda jasoko da.

18. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa eta likidazioa.

1.– Erakunde onuradunak diruz lagundutako prestakuntza-jarduera egin duela justifikatu behar du, baita jarduera horrek sortutako gastu guztiak ere (5. artikuluan ezarritakoak), eta horretarako justifikazio-kontua aurkeztu behar du, auditoretza-txosten eta guzti, betiere diruz lagun daitezkeen kostuen arabera eta ezarritako egozte-irizpideen arabera.

Auditoretza-txostenean honako alderdi hauek egiaztatu behar dira: aitortutako gastuak egozgarriak direla, fakturen edo froga-balio baliokideko kontabilitate-dokumentuen bidez frogatuta daudela, onuradunak gastua prestakuntza-ekintzarekin eta Euskadiko 2007-2013ko Programa Operatiboaren EGFren baterako finantzaketarekin lotzen duen zigilu-marka edo oharra ezarri diola eta diruz lagundutako aldiaren barruan ordainduta daudela, ordainketa egin izana egiaztagiriaren bidez frogatuta. Horri dagokionez, izapideak honako hauek adieraziko ditu: zer prestakuntza-ekintza justifikatzeko aurkeztu diren jatorrizko frogagiriak eta frogagiriaren zenbatekoa osorik edo partzialki egozten zaion diru-laguntzari. Azken kasu horretan, egotzitako zenbateko zehatza adierazi beharko da. Era berean, alde batetik prestakuntza praktikorako beken kontzeptuan ikasleei egindako ordainketen trazabilitatea zuzena dela egiaztatu beharko da, eta, bestetik, berdin egin beharko da prestakuntza-praktikarako konpentsazioa ekonomikoaren kontzeptuan enpresei, erakundeei eta entitateei egindako ordainketei dagokienez. Hori guztia kontabilitate-sistema bereizi batean edo kontabilitate-kode egoki batean erregistratu beharko da.

Kontu-auditorea onuradunak izendatu eta kontratatuko du askatasun osoz, Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jardule gisa erregistratutako profesionalen artean, merkatu libreko batez bestekoa eta sektoreko lehiako batez bestekoa gainditzen ez duten ordainsarien arabera.

Erakunde onuradunak fakturak edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein dokumentu gorde beharko du funtsak zuzen aplikatu direla egiaztatzeko behar bezain zehatz adierazita, baita ordainketa egin dela frogatzen duen dokumentua ere.

2.– Prestakuntza amaitu duten parte-hartzaileen arabera egingo da laguntzen likidazioa. Likidazioak ez du inolaz ere gaindituko hasiera batean onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa.

2.1.– Prestakuntza.

Prestakuntza egikaritu ostean diru-laguntza zehazteko, ekintzen kasuan ikasle batek prestakuntza amaitu duela ulertuko da honako kasu hauetan:

a) Prestakuntza-ekintza amaitu duten parte-hartzaileak, prestakuntza-ekintzarako bertaratzearen ehunekoa gutxienez % 75 denean.

b) Prestakuntza-ekintza hasi, baina lana aurkitu dutelako bertan behera utzi behar izan duten parte-hartzaileak. Kasu horretan eta diru-laguntzari dagokionez, prestakuntza-ekintza amaitu dutela ulertuko da, betiere hasitako prestakuntza-ekintzaren % 25 egin badute gutxienez.

Ekintzak beste arrazoi batzuengatik bertan behera uzten badira, baina betiere prestakuntza-orduen % 25 gutxienez eginda, ekintza hasi duten parte-hartzaileen ehuneko 15era bitarteko desbideratzeak onartuko dira ekintza bakoitzeko.

2.2.– Praktikak enpresetan.

Prestakuntza-ekintza eta proiektuaren garapenari lotutako prospekzio-, tutoretza-, jarraipen- eta kudeaketa-ekintza osagarriak egiteagatiko diru-laguntzak lortzeko, honako helburu hau bete beharko da: prestakuntza-proiektuan parte hartzen dutenen % 100ari enpresetan, erakundeetan edo entitateetan prestakuntza-praktikak ematea. Baldintza hori ez betetzeak praktikak egin ez dituen ikasle bakoitzari dagokion diru-laguntza itzultzea eragingo du, 4. artikuluaren a) eta b) idatz-zatietan zerrendatzen diren moduluen arabera.

Diru-laguntzaren azken likidazioak ez du erakunde onuradunarengan eragin ekonomikorik izango erakunde horrek praktikak eskaini eta parte-hartzaileek beren erabakiz praktikak uzten

dituztenean. Era berean, erakundeak beste praktika bat eskaini beharko dio onuradunari honako kasu honetan: praktikaren % 20 egin aurretik enpresaz aldatzea eragin duten inguruabarrak gertatzea.

3.– Diru-laguntza justifikatzeko eta haren azken likidazioa egiteko, erakunde onuradunak azken prestakuntza-praktika amaitu eta bi hilabeteko gehieneko epean honako hauek aurkeztu beharko ditu: jardueraren azken memoria, auditoretza-txostena biltzen duen justifikazio-kontua eta, hala badagokio, justifikatutako zenbatekoaren eta aurrerakin-kontzeptuan jasotako zenbatekoaren arteko aldea ingresatu izanaren egiaztagiria.

4.– Diruz lagundutako gastuak Europako Gizarte Funtsaren hautagarritasun-betekizunak bete ahal izateko fakturen, nominen edo froga-balioa edo balio baliokidea duten dokumentuen bidez egiaztatu beharko dira, baita ordainagirien bidez ere. Era berean, gastuaren kontabilitate-erregistroa egin beharko da, kontabilitate-sistema bereizi batean edo kontabilitate-kode egoki baten bitartez.

19. artikulua.– Jarraipena eta kontrola: zentro eta erakunde onuradunen betebeharrak.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluan orokorrean ezartzen direnak izango dira onuradunaren betebeharrak, eta bereziki honako hauek:

1.– Laguntzen onuradunek onartu egingo dituzte Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta egitura-funtsen Europako kontrol-organoek egiten dituzten egiaztapen- eta kontrol-jarduerak, eta lokal eta instalazioetarako sarbidea ahalbidetuko dute, baita prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileekin eta elkarrizketatu nahi diren gainerako pertsonekin harremanetan jartzeko modua ere.

Kontrol-jarduerak onartzeko betebehar orokor horren esparruan, onuradunak honako hau bete beharko du:

● Finantzatutako ekimena egikaritzeari edo ekimenaren bideragarritasunari lotutako edozein informazio ematea, baita eskatzen zaion jarraipen-dokumentazioa betetzea eta bidaltzea ere.

● Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea beste erakunde batzuetan diru-laguntzak edo laguntzak eskatu edo eskuratu direla, deialdi honetan diruz lagundutako jarduera osoa edo jardueraren zati bat eraginpean hartzen denean.

● Diruz lagundutako jardueraren xedea edo izaera funtsean aldatzen duen edozein gorabehera jakinaraztea, eta diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein alderdiren aldaketak jakinaraztea.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, ekintzak garatzen diren bitartean horien jarraipena ezartzeaz gain, auditoretzen eta ikuskapenen plan bat ezar dezake, deialdian zehaztutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, baita diruz lagundutako ekintzak egikaritzeko baldintza errealak egiaztatzeko ere.

3.– Jarraipen Batzordea sortuko da; batzorde hori Elkarrizketa Sozialaren Mahaia osatzen dutenek eta Lanbideko zuzendari nagusiak edo hark izendatzen duenak eratuko dute, eta programa honen babesean egiten diren eskabideen eta ematen diren ebazpenen berri emango zaie, programa ebaluatu ahal izateko.

20. artikulua.– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eman beharko zaio horren berri berehala, eta, nolanahi ere, diruz lagundutako jarduera egikaritzeko epea amaitu aurretik; kasu horretan, emandako diru-laguntza aldatu ahal izango da, betiere diru-laguntzen onuradun izateko deialdi honetan ezarritako gutxieneko baldintzak betez gero. Baldintzen aldaketa horren ondorioz diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultze-prozedurari hasiera emango zaio.

21. artikulua.– Bateragarritasuna.

Prestakuntza-zentro edo prestakuntza-erakundeek eta enpresek jasoko dituzten deialdi honetako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako emandako beste edozein diru-laguntza edo laguntzarekin, Europako funtsen baterako finantzaketa jasotzen dutenak salbuetsita; nolanahi ere, hainbat finantzaketa-iturritatik jasotako laguntzen zenbateko osoak ezin izango du gainditu diru-laguntzaren xede diren prestakuntza-ekintzen benetako kostua. Kostu hori gainditzen gero, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da.

Ikasleak jasotzen dituzten beka eta laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein laguntza edo konpentsazioarekin.

22. artikulua.– Ez-betetzeak.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen erakunde onuradunak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluko kasuetako batean badaude edo deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak, Ebazpen baten bidez, diru-laguntza ordaindu zenetik jasotako zenbateko eta legezko interes guztiak edo zati bat itzultzeko betebeharra deklaratuko du, bidezkoak diren gainerako ekintzak aparte utzi gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzultzeen erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

23. artikulua.– Itzultzeko prozedura.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiak harturiko akordioak hasiko du itzultze-prozedura, eta laguntzaren erakunde onuradunari jakinaraziko zaio. Ez-betetzea eragin duten gertakariak jakinaraziko zaizkio, eta errekerimendua egingo zaio hamabost eguneko epean egoki iritzitako alegazioak egiteko eta justifikazio-dokumentuak aurkezteko.

2.– Alegazioak aurkezteko epea amaitu eta alegaziorik aurkeztu ez bada, edo atzera bota badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

3.– Ebazpenean ez-betetzea gertatu dela adierazten bada eta diru-laguntza (osoa edo zati bat) jasotzeko eskubidea galdutzat jotzen bada, erakunde onuradunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagozkion zenbatekoak itzuli beharko dizkio, Ebazpenaren jakinarazpena egiten denetik bi hilabeteko gehieneko epean. Epe hori borondatezko aldiaren epetzat hartuko da.

Borondatezko aldian itzultzen ez bada, dagozkion izapideei hasiera emango zaie premiamendu-bidetik berreskuratzeko.

24. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendu automatizatua.

Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere fitxategi automatizatuetan sartuko ditu deialdi honetan araututako laguntza-eskabideak betez lortutako datu pertsonalak.

Halaber, interesdunek Legean aurreikusitako datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte; horretarako, idazki bat bidali beharko dute hori jakinaraziz Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009, Vitoria-Gasteiz).

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Laguntza teknikoa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Ihobe, S.A. Sozietate Publikoaren laguntza izango du deialdiarekin zerikusia duten alderdi teknikoetan eta ingurumen-arloko alderdietan; horretarako, dagokion lankidetza-hitzarmena sinatuko da Ihobe, S.A. Sozietate Publikoaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren artean Euskal Enpresaren 2010-2014ko Ekoefizientzia Programaren esparruan.

Bigarrena.– Erakunde laguntzaileak izendatzea.

1.– Deialdi honen 5. artikuluan aurreikusitako erakunde onuradunak erakunde laguntzaile gisa izendatzen dira deialdi honetan aurreikusitako laguntzak eta bekak –prestakunta-ekintzetan eta lanbide-praktiketan parte hartzen dutenei eta praktika horiek egingo diren enpresei zuzendutakoak– kudeatzeko eta ordaintzeko, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 52. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Aipatutako 52. artikuluak dioenez, deialdi honetan aipatzen diren funtsak ematen dituen organo eskudunaren kontura eta izenean jardungo dute erakunde onuradunek. Haatik, funts horiek ez dira, inola ere, haien ondaretzat hartuko.

2.– Deialdi honetan biltzen diren laguntzak finantzatzera bideratutako funtsak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erakunde onuradunei transferituko dizkie (erakunde laguntzaileak diren heinean), era honetan:

● Laguntzen lehen ordainketa 9.A) artikuluan aurreikusitako laguntzak parte-hartzaileei prestakuntza-prozesuan ordaintzera zuzendua izango da, 2012ko ordainketa-krediturari dagokio eta laguntzak emateko ebazpena hartu ondoren gauzatuko da. Gainerakoa diruz lagundutako aldia amaitu ondoren transferituko da 2013ko ekitaldian.

● Enpresa, erakunde eta entitateetako prestakuntza-praktiken aldiari dagozkion beketara (9.B) artikuluan aurreikusitakoak) bideratutako funtsak, 2013ko aurrekontu arruntari dagozkionak, hilabete bakoitzeko 25a baino lehen transferituko dira.

● Enpresetan, erakundeetan eta entitateetan egiten diren prestakuntza-praktikak direla-eta enpresei, erakundeei eta entitateei konpentsazio ekonomikoa ematera bideratutako laguntzak (10. artikuluan aurreikusitakoak) 2013ko aurrekontu arruntari dagozkio, eta laguntza horiek emateko dagokion ebazpena hartu ondoren transferituko dira ordainketa bakar batean.

3.– Erakunde laguntzaileen betebeharrak.

Deialdi honetan esleitutako betebeharrez gain eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 52. artikuluan ezarritako betebeharrez gain, erakunde laguntzaileek honako betebehar hauek dituzte:

– Funtsak banatzea prestakuntza-ekintzetan eta prestakuntza-praktiketan parte hartzen duten ikasleen artean eta, era berean, parte-hartzaileek praktikak egin dituzten enpresen, erakundeen eta entitateen artean, konpentsazio ekonomiko gisa.

– Laguntzak aplikatu zaizkien prestakuntza-ekintzak egin izana justifikatzen duten agiriak eskatzea eta gordetzea, lau urtez.

– Jaso diren funtsak zertan aplikatu diren justifikatzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eta honako alderdi hauek bilduko dituen zerrenda bat ematea: azken onuradunen izen-abizenak, emandako laguntzak, egindako ordainketak eta, oro har, funts horiekin egindako etengabeko prestakuntzako jardueren memoria orokorra osa dezaketen bestelako datu kuantitatiboak zein kualitatiboak.

– Funtsen kudeaketa dela-eta Eusko Jaurlaritzak –Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren bitartez– eta egitura-funtsen Europako kontrol-instantziek egin ditzaketen egiaztatze-jardunetara jartzea.

4.– Finantzaketa-soberakinen azken likidazioa.

Deialdi honetan arautzen diren laguntzen onuradunek aplikatu ez dituzten finantzaketa-soberakinak (deialdian bertan aurreikusitakoak) erakunde onuradunek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari itzuliko dizkiote 2013ko abenduaren 31 baino lehen.

I. ERANSKINA

Prestakuntza-ekintza	Sartzeko prestakuntza-profila	Sektore interesdunak. Lotutako jarduera		Gorabidean dagoen lanpostua Lanak
		EJSN 2009	Deskribapena	
Ekoberrikuntza produkzio-prozesuetan: 1.- Metalaren sektorea 2.- Kautxuaren, plastikoaren eta konpositeen sektorea	Ingeniaritza teknikoak, industria-ingeniaritzak, kimika, biologia eta ingurumen-zientziak Goi-mailako lanbide-heziketa eraikuntza matalikoan, fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioan eta ingurumen-kimikan	24	Metalurgia; burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa	Metalaren sektoreko ekoberrikuntzako teknikariak
		25	Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik	
		256	Metalen tratamendua eta estaldura	
		70	Enpresa-kudeaketako aholkularitza-jarduerak	
		22	Kautxuaren, plastikoaren eta konpositeen fabrikazioa	Kautxuaren, plastikoaren eta konpositeen sektoreko ekoberrikuntzako teknikariak
		70	Enpresa-kudeaketako aholkularitza-jarduerak	
3.- Arte grafikoen industriak	Goi-mailako prestakuntza arte grafikoetako eta oregintzako eta papergintzako industrien produkzioan	18	Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa	Arte grafikoen industrietako produkzio ekoefizienteko teknikariak
		58	Edizioa	
4.- Altzarigintzaren sektorea	Goi-mailako lanbide-heziketa egurraren eta altzarien produkzioan	31	Altzarigintza	Altzarigintza-sektoreko produkzio ekoefizienteko teknikariak
5.- Ibilgailuak pintatzea	Goi-mailako lanbide-heziketa automozioan	452	Ibilgailu motordunen mantentzea eta konponketa (pintoreak)	Ibilgailu motordunak modu ekoefizientean pintatzeko teknikariak
6.- Merkaturako ingurumen-ziurtagiria	Ingeniaritza teknikoak, industria-ingeniaritzak, kimika, biologia eta ingurumen-zientziak	24	Metalurgia; burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa	Ingurumena Kudeatzeko Sistemen arduraduna
		25	Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik	
		84	Udalak eta Administrazio publikoak	
		256	Metalen tratamendua eta estaldura	

Prestakuntza-ekintza	Sartzeko prestakuntza-profila	Sektore interesdunak. Lotutako jarduera		Gorabidean dagoen lanpostua Lanak
		EJSN 2009	Deskribapena	
7.- Obra-hondakinen kudeaketa	Goi-mailako lanbide-heziketa etxegintzan eta eraikuntzan	41	Eraikinen eraikuntza	Obra-hondakinen kudeaketaren arduraduna
		42	Ingeniaritza zibila	
		43	Eraikuntza espezializatuko jarduerak	
		84	Udalak eta Administrazio publikoak	
		71	Arkitektura- eta ingeniaritza-zerbitzu teknikoak	
8.- Produktuen diseinu integrala	Ingeniaritza teknikoak eta industria-ingeniaritzak	13	Ehungintza	Industriako Ekodiseinua
		15	Larruaren eta oinetakoen industria	
		162	Zurezko, kortxozko, saskigintzako eta espartzugintzako produktuen fabrikazioa	
		17	Papergintza	
		18	Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa	
		20	Kimikaren industria	
		22	Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa	
		23	Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioa	
		25	Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik	
		26	Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa	
		27	Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa	
		28	Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	
		29	Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa	

Prestakuntza-ekintza	Sartzeko prestakuntza-profila	Sektore interesdunak. Lotutako jarduera		Gorabidean dagoen lanpostua Lanak
		EJSN 2009	Deskribapena	
8.- Produktuen diseinu integrala	Ingeniaritza teknikoak eta Industria-ingeniaritzak	30	Beste garraio-material batzuen fabrikazioa	Industriako Ekodiseinua
		31	Altzarien fabrikazioa	
		323	Kirol-gaien fabrikazioa	
		324	Jokoen eta jostailuen fabrikazioa	
		35	Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornikuntza	
		61	Telekomunikazioiak	
		741	Diseinu espezializatuko jarduerak	
		70	Enpresa-kudeaketako aholkularitza-jarduerak	
		13	Ehungintza	
		15	Larruaren eta oinetakoen industria	
		162	Zurezko, kortxozko, saskigintzako eta espartzugintzako produktuen fabrikazioa	
		17	Papergintza	
		18	Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa	
		20	Kimikaren industria	

Prestakuntza-ekintza	Sartzeko prestakuntza-profila	Sektore interesdunak. Lotutako jarduera		Gorabidean dagoen lanpostua Lanak
		EJSN 2009	Deskribapena	
9.- Inguratzailearen energia-efizientzia	Goi-mailako lanbide-heziketa eraikuntza-proiektuetan, energia-efizientzian eta eguzki-energia termikoan	412	Eraikinen eraikuntza	Inguratzaile ekoefizienteetako espezialista
		433	Eraikinen akaberak	
		439	Eraikuntza espezializatuko beste obra batzuk	
		84	Udalak eta Administrazio publikoak	
		71	Arkitekturako eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak; entsegu eta analisi teknikoak	
10.- Eraikinaren estankotasun-testa	Goi-mailako lanbide-heziketa eraikuntza-proiektuetan, energia-efizientzian eta eguzki-energia termikoan	71	Arkitekturako eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak; entsegu eta analisi teknikoak	Entseguko teknikariak
		74	Beste jarduera profesional, zientifiko eta tekniko batzuk	
11.- Eraikinen mantentze eta kudeaketa ekoefizientea	Goi-mailako lanbide-heziketa erregulazio- eta kontrol-sistema automatikoetan, sistema elektroniko eta automatizatuetan, energia-efizientzian, eguzki-energia termikoan, instalazio termikoen eta fluidoen instalazioen proiektuen garapenean eta instalazio termikoen eta fluidoen instalazioen mantentzean	432	Instalazio elektrikoak, iturgintza-instalazioak eta eraikuntza-obretako beste instalazio batzuk	Eraikinen energia-kudeaketa
		84	Udalak eta Administrazio publikoak	
		811	Eraikinetarako eta instalazioetarako zerbitzu integralak	

Prestakuntza-ekintza	Sartzeko prestakuntza-profila	Sektore interesdunak. Lotutako jarduera		Gorabidean dagoen lanpostua Lanak
		EJSN 2009	Deskribapena	
